



# HEZKUNTZA PROIEKTUA





## AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. IHP: Definizioa	4
3. Kalitatea	5
4. Ikuspena	6
5. Eginkizuna	7
6. Balioak	8
7. Heziketa eredu	10
7.1. Izaera hezitzailea	10
7.2. Izaera berritzailea	13
7.3. Izaera irekia	14
7.4. Hizkuntzen izaera integratzailea	14
7.5. Bizikidetzaren osasuntsua	15
8. Profesional pedagogikoen profila	15
9. Familia eta gizarte hezitzailearen eredu	16
1. eranskina: Antolaketa egitura	17
2. eranskina: Ikastetxeko curricular proiektuaren ardatzak	18
3. eranskinak: Ikastetxeko hezkuntza proiektuaren egitura	19

## 1. SARRERA

Andra Mari Ikastola 1969. urtean euskara eta euskal kultura sustatzeko herri ekimenez sortutako ikastetxea da. Ibilbide luze honetan bailaran euskalgintzan erreferente izatera iritsi da. Derrigorrezko hezkuntza ziklo guztiak (2-16) eskaintzen ditu eta, gerora begira, 16-18 urtetako ziklora zabaltzeko egitasmoa aurreikusten du.

Ikastolaren eginkizuna betetzeko hiru eraikin ditu bi herritan; Arbizukoa, HHko gela unitario bakar batekin, eta Etxarrikoak: bata 2015-2016 ikasturtean mustu zen eta bertan HH eta LHko etapak daude; bestea herrian dagoen eraikina da, DBHko ikasleekin. Eraikin hauetan Hiriberri, Ihabar, Irañeta, Uharte Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Lizarragabengoa, Unanu, Dorrao, Lizarraga, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Iturmendiko ikasleak daude.

Herri hauetan euskararen eta gaztelaniaren presentzia desberdina den arren, Andra Mari Ikastolak testuinguru euskalduna du, euskararen arnagune izendaturiko bi herritan kokatua dagoelarik eta bertan murgilduta, izaera publikoa izanik, ikasle guztientzat irekia dago. Hein handi batean profesional talde egonkor eta eraginkor batek bideratzen duen kalitatezko hezkuntza eguneratua eta aurrerakoa eskaintzen du.

## 2. IHP: DEFINIZIOA

**Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak (IHP)**, Hezkuntza Komunitateak adostutako xedek definitzen ditu eta ikastetxearen jardunbidea koherentea izanen da marko erreferentzial egonkor honekin.

Andra Mari Ikastola, Aralarko Mikel Donea Ikasleen Gurasoen Irakaskuntza Elkartearen osatzen duten ikastetxeetako bat izanik, Nafarroako Ikastolen Elkarteko (NIE) partaidea da eta ikastolen mugimenduak 2009an eratu zuen Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen (EHI) Europar Kooperatibako partaidea da. Eta bereak egiten ditu EHIren helburuak eta printzipioak. Helburu eta printzipio hauekin koherenteak diren, Eginkizuna, Ikuspena eta Balioak dokumentuen definizioak jasotzen dituelarik bere IHPan.

Andra Mari osatzen duen Hezkuntza Komunitateko estamentu orok parte aktiboa du ikastetxeko kudeaketan (1. eranskina) kalitatezko hezkuntza euskalduna helburutzat hartuz, ikastetxearen Kalitate definizioan honela jasotzen delarik.

### **3. KALITATEA**

Andra Mari Ikastolak, euskara eta euskal kulturaren oinarriturik, hizkuntza honen ezagutza egokia bermatzen du, beste kulturen ezagutza eta errespetua bultzatuz.

Gure Ikastolak, ikasleak giza eragile ekintzaileak izan daitezen, pertsonaren norbanako subjektu autonomo gisa, jendartekide gisa eta natura-kide gisa banaezinak diren dimentsioak lantzen ditu, ikaslearen ahalik eta giza garapen handiena lortzeko. Horretarako, Euskal Curriculumean proposatzen diren Hezkuntza Konpetentzia Orokorrak sustatzen ditu eta ikasle bakoitzaren gaitasun, interes eta motibazioak kontuan hartuz, baliabide material eta giza-baliabide egokiak erabiltzen ditu, zientziaren eta teknologiaren ezagutzari eta, erabilerari eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiei garrantzi berezia emanez.

Hezkuntza Komunitatea osoaren inplikazioa ezinbestekoa denez, IKP (Ikastetxeko Kurrikular Proiektua) eta IHP (Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua) dokumentuak ezagutzera ematen ditu kide guztien parte hartzea sustatuz.

Prozesu honen guztiaren kalitatea bermatzeko, Ikastolak Kalitate Egitasmo Integratua (KEI) du abian. KEIk, kalitatezko funtzionamendua bermatzeko, eremu guztietan kontuan hartzeko printzipioak ezartzen ditu:

1. Pertsonen satisfazioa.
2. Hezkuntza jarduera guztiak ikasleari pertsona den aldetik zuzentzea.
3. Inplikazioa.
4. Aitzindaritza konpartitua, Ikastolaren hobekuntzan konprometitua.
5. Ebaluazio hezigarria.
6. Eraginkortasuna eta emaitzak.

Honekin guztiarekin, Hezkuntza komunitatea asetzen da, familia, langile eta ikasleen beharrei eta nahiei erantzunez.

#### **4. IKUSPENA**

##### **o IKAS-IRAKASKUNTZA PROZESUA HEZKUNTZA ARLOAN**

- a. Ikastolak, Euskal Curriculumaren xedearekin bat eginez, norberaren, gizartearen eta naturaren errealitateak kritikoki ulertzeko, horietan eraginkortasunez ekiteko eta arduraz eraldatzeko baliabideak ematen ditu, era horretara, pertsonak, gizabanako gisa, jendartekide eta izadi-kide gisa ahalik eta gaitasun gehien gara dezaten ahalegintzen da.
- b. Hezkuntza kalitatearen hobekuntza bermatzeko ekimenak sustatzen ditu.

##### **o IKASTOLAKO KUDEAKETA**

- c. Pedagogia nahiz finantza prozesuak hobetzeko auto-ebaluazioaz baliatuz, kudeaketa eraginkorra duen ikastetxea.
- d. Hezkuntza komunitatearen partaidetza sustatzen duena, elkarlana bultzatuz.
- e. Bazkideek Ikastola proiektua bermatu eta sustatzen dute.

##### **o EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN MUGIMENDUAREKIKO IDENTIFIKAZIOA**

- f. Hezkuntza komunitateko partaide orok IKASTOLA proiektuarekin identifikatzeko eta inplikatzeko bideak jorratzen ditu.
- g. Andra Mari Ikastola, ikastolen kolektiboarekiko elkartasuna duen unitatea da, eta Euskal Herriko ikastolen partaidea den heinean, ikastolen sarea garatzeko konpromisoa du.

##### **o PROIEKTUAREN GIZARTERATZEA**

- h. Inguruko erakunde eragileekin elkarlanean giza ekimenak bultzatzen ditu.
- i. Ikastolako proiektua gizarteratzen du.

## 5. EGINKIZUNA

ANDRA MARI IKASTOLA, ARALARKO MIKEL DONEA IKASLEEN GURASOEN IRAKASKUNTZA ELKARTEAREN ardatz bat da. Bertan Iturmendi, Bakaiku, Etxarri Aranatz, Lizarraga, Dorrau, Unanu, Arbizu, Lizarragabengoa, Lakuntza, Arruazu, Hiriberri, Uharte Arakil, Irañeta eta Ihabar herrietako ikasleak biltzen dira.

IKASTETXEAREN EGINKIZUNA:

### o **Ikasleen hezkuntza integrala**

Pertsonaren garapen osoa lortzeko asmoz, ondoko hezkuntza xedeak bereak egiten ditu:

- Ikasleak helduarorako eta bizitza asebetea izateko prestatzea, gizabanako gisa, gizarteko herritar aktibo gisa eta natura zaintzearekin eta garapen iraunkorrarekin arduratzen den pertsona gisa.
- Ikasleek euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren oinarrizko elementuak ikas ditzaten lortzea eta geroko ikasketak egiteko eta lanean txertatzeko beharrezko bermeekin prestatzea.
- Bizi osoan etengabeko ikaskuntza garatzeko gai izateko ikasleak sentsibilizatzea eta gaitzea.

Horretarako elkarlana, elkarrizketa, errespetua, tolerantzia edo solidaritatea bezalako balio eta jokoera demokratikoak garatzen ditu; bere ikasleak aukera politiko, kultural, sozial... orotariko independentzia eta burujabetza izan dezan, gaitasun kritikoa eta irizpide propioak lantzen ditu, pluraltasunarekiko begirunean heziz.

### o **Euskara eta euskal kultura**

Euskararen normalizazioa sustatzeko, euskara da komunikazio eta irakaskuntzan erabiltzen den hizkuntza nagusia. Ikastolak, Euskal kulturaren transmisio, garapen eta finkapena ere bultzatzen ditu eta, erakunde bezala, errealitate historiko, sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalean bere presentzia ziurtatzen ahalegintzen da.

Aipatutako eginkizunetan identitate euskalduna bermatzen duen kalitatezko eskola sustatu nahi du, Euskal Herria euskararen herrizat hartuz. Horretarako eman behar diren prozesuak ahalbideratzen ditu ikasleek, Europan txertatuta eta munduarekin lotuta dagoen euskal gizarte kohesionatu batean bizitzen ikas dezaten.

## 6. BALIOAK

Andra Mari Ikastolak kooperatiba izaera du, eta balore eta printzipio hauek ditu oinarri:

BALIOAK	AZALPENA
<i>Elkarlana</i>	Norbanakoa guztiz garatzeko bide bakarra besteekin elkartzea da. Helburu berdina lortzeko taldean lan eginaz eta erantzukizuna taldean hartuta.
<i>Erantzukizuna</i>	Bazkideen erantzukizuna da kooperatibaren funtzionamendua egokia izatea. Baita botere publiko eta pribatuetatik independente mantentzekoa ere.
<i>Demokrazia</i>	Kooperatibako kideek modu demokratikoan guztien artean, parte hartzen dute lanean, bozketan, erabakiak hartzen... "Pertsona bat, boto bat".
<i>Berdintasuna</i>	Kooperatibako bazkideek erabakiak hartzeko aukera berdinak dituzte. Horretarako, beharrezko informazioa jaso eta beraien iritzia emateko eskubidea dute.
<i>Ekitatea</i>	Kooperatiba barruko kideen artean partaidetzagatik jasotako konpentsaziorik balego banaketa ekitatez egingo litzateke. Irabazien banaketa egindako lan ekarpenaren arabera egingo da. Ikastolak ez du irabazi asmorik, beraz balio hau kontzeptu teoriko bat besterik ez litzateke izango.
<i>Elkartasuna</i>	Kooperatiben ekintzak ez die interes pertsonal mugatuei erantzuten, kolektibitateari erantzuten dio.

PRINTZIBIOAK	AZALPENA
<i>Atxikimendu librea</i>	Kooperatibako kide izateko konpromisoa inoiz ezin da behartutakoa izan borondatezkoa baizik. Kooperatibek ez dute sexu, ideia politiko, gizarte maila, etnia edo erlijio arrazoiengatik inor baztertuko.
<i>Kudeaketa demokratikoa</i>	Kooperatibak bazkideek kudeatzen dituzte modu aktiboan. Bazkide bakoitzak boto bat du eta modu horretan parte hartzen du kooperatibaren kudeaketan.
<i>Parte-hartze ekonomikoa</i>	Bazkide guztiek egiten dute kapital ekarpena modu ekitatiboan eta berau kudeatzen parte hartzen dute.
<i>Autonomia eta independentzia</i>	Kooperatibak autoeraturako erakundeak dira, bazkideek kudeatzen dituztenak. Autonomoak dira eta beste hainbat erakundeekin akordioak



	sinatzen badituzte edo kanpoko kapitala sartzen badute ere, beti autonomia gordetzeko moduan egiten dute eta beti mantenduko da kudeaketa bazkideen esku.
<b><i>Kooperatiba izaeraren sustapena formakuntzaren bitartez</i></b>	Kooperatibako bazkideek hezkuntza jasotzen dute kooperatibaren inguruko gaietan informazio gehiago izateko, beraien iritzia lantzeko eta kooperatibaren garapenerako.
<b><i>Kooperatiben arteko lankidetz</i></b>	Beraien arteko lankidetzaren bidez kooperatiba mugimendua indartzen dute eta helburu komunei erantzuten zaie.
<b><i>Komunitatearekiko konpromisoa</i></b>	Kooperatibek kokatuta dauden komunitatearekin lotura zuzena dute. Bazkideek zehaztutako moduan egiten dute komunitatearen garapenarekiko ekarpena.

Andra Mari Ikastolak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean jasotzen diren adierazpenak bereak egiten ditu, Eskola Komunitatearen elkarbizitzan alde batetik, eta giza-eragile bezala bestetik, honako balioak lehenesten dituelarik:


- TOLERANTZIA: Bestearen ikuspuntuak sustatzean datzan heinean, tolerantzia errespetua eta komunikazio asertiboaren oinarria da. Balio hau ikastetxeko bizikidetzan, norberak dituen iritzia osatzeko, arazoak konpontzeko eta proiektu komunak dituzten lan taldeko kideen arteko konpromisoa lortzeko aintzakotzat hartzen da.
- BERDINTASUNA: Eskola inklusiboaren alde eginez, maila soziokulturala eta ekonomiko ezberdinetako pertsoneri irekia, aukera-berdintasuna bermatzen du, Ikastolaren eginkizunetan justizia sozialaren aldeko bazterkeriarik gabeko jarrera sustatzen dituelarik.
- ELKARKIDETZA/SOLIDARITATEA: Herri ekimenetik sortuak izanik, komunitateko kide guztien parte-hartzea ezinbestekoa da, partekatzea eta elkarkidetzak jarrerak azaltzen direlarik bakoitzaren jardunbidean.


Honengatik guztiagatik, Andra Mari Ikastolak familiek seme-alaben hezkuntza mota aukeratzeko duten eskubidea errespetatzen du.

## 7. HEZIKETA EREDUA

Andra Mari Ikastolako heziketak bost ardatzetan oinarritzen du bere eginkizuna, zeinetan **aniztasuna kontuan harturik**, ikaslearen garapen osoa (**2. eranskina**) lortzea eta, oro har, Hezkuntza Komunitate osoaren asetzea helburuak aintzakotzat hartzen diren.

**7.1. IZAERA HEZITZAILEA:** Ikaslea, bizitzan sor dakizkiokeen egoerei irtenbidea eraginkortasunez emateko gaitu, **Oinarrizko Konpetentzia eta Pertsona Ereduan definituta dauden xedeak garatuz.**






IKASKUNTZAREN XEDEA	DEFINIZIOA
<p style="text-align: center;"><b>Pertsona:</b></p>	
<p><b>1. Euskaldun konprometitua eta eleanitza</b></p>	<p>Euskal kultura eta hizkuntza ezagutzen, erabiltzen, errespetatzen eta sustatzen duena, eleanitzak izanez eta gainerako kulturak ezagutzuz eta aintzat hartuz, euskal identitatea mantentzeko eta norbera Sakanatik mundura zabaltzeko.</p>
<p><b>2. Kritikoa</b></p>	<p>Errealitateko gai desberdinen inguruan hausnartzen duena, euskarri anitzetan ikuspegi desberdineko informazio iturriak aztertuz eta kontrastatuz, iritzi propioak izateko eta arrazoitzeke.</p>
<p><b>3. Autonomoa</b></p>	<p>Bizitzako egoera anitzetan erabaki propio eta arduratsuak hartzen dituena, norberaren gaitasun eta mugak kontuan hartuz, egoera horiei erantzukizunez aurre egiteko.</p>
<p><b>4. Kooperatiboa</b></p>	<p>Taldearen aniztasuna errespetatuz taldean lan egiten duena, parte hartuz eta aktiboki entzunez, besteekiko konpromisoa, gaitasun sozialak eta jarrera kritikoa garatzeko.</p>

<b>5. Ekintzailea</b>	Ideiak ekintza bihurtzen dituena, jakin-mina eta inizatiba izanez, norbere erronkei eta gizarteko testuinguru anitzetako egoerei irtenbideak emateko.
<b>6. Sortzailea-berritzailea</b>	Egoera desberdinen aurrean irtenbide berriak bilatzen, aurkitzen, baloratzen eta aurrera eramaten dituena, aukera anitzak arakatzuz, bizitzako egoerei aurre egiteko.
<b>7. Ziurra</b>	Bere buruarekiko konfiantza duena, norbera ezagutuz, onartuz eta maitatuz, bere nahiak eta gaitasunak garatzeko.
<b>8. Adeitsua</b>	Jokabide etikoak dituena, norbere burua, besteak eta ingurumena errespetatuz, elkarbizitza osasuntsu, aberats eta eraikitzaile bat izateko.
<b>9. Komunikatzailea</b>	Informazioa ahoz, gorputz adierazpena erabiliz, adierazpen artistikoz eta idatziz transmititzen duena, eraginkortasunez, enpatiaz eta asertibitatez, besteekin erlazionatzeko.

- Ikaslea egoerei eraginkortasunez irtenbidea bilatzeko emanen zaion baliabide multzoa era integratuan erabiltzen trebatuko da. Horretarako:
  - o Ikas-irakas prozesuan ikaslea baliabide anitzak erabiltzera bultzatuko duten egoera esanguratsuak planteatuko dira.
  - o Egoerak aukeratzeko ikaslearen testuingurua, behar pertsonalak eta gizartearenak kontuan hartuko dira.
  - o Pertsonaren eremu desberdinetan (pertsonala, akademikoa eta lan eremua) sor daitezkeen egoerak aintzat hartuko dira.



**7.2. IZAERA BERRITZAILEA:** eskolatzeko prozesuan ikasleen garapen osoa lortzea eta gizartearen bilakaerak sortzen dituen beharretara egokitzea helburu duen hezkuntza.

Honek esan nahi du:

- Zientzia eta IKTen ezagutza eta erabilera bermatzea.
- Informazioaren eta komunikazioa kudeatzeko teknikak lantzea.
- Heziketa eredu hobetzeko ikerketa didaktiko-pedagogikoak egitea.
- Ebaluazioa, ikaslearen garapen integrala **bideratzeko erabiliz**, etengabeko hobekuntza prozesuak sustatzea.
- Irakaslearen garapen profesionala bermatuko duen etengabeko prestakuntza ziurtatzea.
- Ikastolak Hezkuntza Komunitatearen eta gizartearen espektatibak eta beharrak kontuan hartzea eta Ikastola-eredua etengabe hobetzen laguntzea.

**7.3. HIZKUNTZEN IZAERA INTEGRATZAILEA:** euskara eta euskaldun izaera ardatz harturik, Ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak biltzen ditu eta eleaniztasunaren trataerari koherentzia ematen dio.

Honek esan nahi du:

- Irakasgaien arteko hizkuntz koordinaketa ematea ikasleen komunikazio-konpetentzia garatzeko.
- Euskararen erabilera areagotzea.
- Euskara eta euskal kultura sustatzea.
- Prestakuntza planak hizkuntza beharrei erantzutea.
- Hizkuntzen trataeraren inguruko erabakiak jasotzea, euskararen presentzia eta erabilera areagotuz.
- Ikasle euskaldun eleanitzak heztea.

**7.4. IZAERA IREKIA:** Euskalduntasuna ardatz izanik eta beste kultura eta hizkuntzekiko irekiak egonik, elkarreragin aberasgarria lortzen duen hezkuntza.

Honek esan nahi du:

- Ikasleek eta profesionalek euskararen ezagupen sendoa izatea.
- Hizkuntzen errespetuan hezteko, norberaren hizkuntzaren kontzientzia izatea.
- Ikastolaren proiektua plazaratzea, gizatalde eta erakunde eragile bezala, euskara eta euskal kulturarekin zerikusia duten jarduerak sustatzea.
- Hizkuntz eta kultur desberdinen arteko harremanak eta errespetua aldarrikatzen dituzten erakunde eta norbanakoekin elkarlanean aritzea.
- Hizkuntza eta kultur ezberdinen ondarea partekatzea, elkarren arteko harremanaz aberastea
- Gizartean gertatzen diren aldaketen aurrean jarrera ireki kritikoak edukitzea.

**7.5. BIZIKIDETZA OSASUNTSUA:** Hezkuntza Komunitateko kideen arteko harremanak aberasgarriak eta onuragarriak izan daitezen, arreta berezia jartzen duen hezkuntza.

Honek esan nahi du:

- Ikasleek, ideiak eta proiektuak **partekatzen** ikasten dutela, euren artean elkarreraginez eta konfiantza sortuz, talde kooperatiboetan arituz eta besteekiko harremanetan aberastuz.
- Irakasle ikasleen arteko harremanak, elkarreragin positiboa sustatzen duten erlazioak direla, **emozioak erregulatu eta kontrolatzen** direlarik.
- “Irakasle-familia” eremuan, **entzute-aktiborako** jarrera azaltzen dutela, ikaslearen onurako behar diren neurriak hartuz.
- Irakasleek euren artean **elkarlanean** aritzeko jarrera agertzen dutela.
- “Familia-ikasle” arteko harremana **errespetuzkoa** dela, bien arteko interesak kontuan hartzen dira esku-hartze negoziatuak adosten direlarik.

Ardatz hauek ikastetxearen kalitatearen Definizioa, Eginkizuna, Ikuspena eta Balioekin koherenteak izanik, beraien aterkipean integraturik daude (3. Eranskina).

## 8. PROFESIONAL PEDAGOGIKOEN PROFILA

Euskara denez hizkuntza nagusia eta ikuspegi eleaniztunaren ardatz, Ikastolako irakasleak maila altuko hizkuntza-eskakizuna betetzen du, euskararen erabileran, ofiziala den beste hizkuntzaren erabileran eta, bere betebeharrak didaktikoek hala eskatzen badute, hirugarren hizkuntza baten erabileran ere.

Era berean, prestakuntza eta inplikazioa dauzka ikasleek oinarrizko kompetentziak gara ditzaten laguntzeko.

Profesionalak ikasleen aniztasuna kontutan hartuko du, dagokion egokitzapenak eginez ikasleak oinarrizko kompetentziak gara ditzan.

Gainera, familien, ikasleen eta gizartearen espektatibak kontuan hartuko ditu, eta Ikastola-eredua etengabe hobetzen lagunduko du.

## 9. FAMILIA ETA GIZARTE HEZITZAILEAREN EREDUA

### **Barne eragileekin elkar lana:**

Andra Mari Ikastola gizartearentzat eta gizartearekin batera etengabeko prozesu eraldatzailean jarduten da. Alde batetik, gizartearentzat, egungo haur eta gazteak biharko gizartearentzat prestatu behar dituelako. Zentzu honetan, eta Ikastola hezkuntzako eragile den heinean, oso adi dago sortzen diren eta sumatzen dituen premiei erantzuteko eta beharrezkoak diren balore horien baitan hezteko.

Bestalde, Andra Mari Ikastolak argi dauka gizartearengan eragin behar duela balore etikoetan sustraitzen den gizarte bat aldarrikatuz. Baina hau lortzeko, Ikastolak ezin du uharte isolatu bat izan. Ezinbestekoa du familia, ikasle, irakasle eta gizartearen beste erakundeekin batera, dauden premiak jasotzea, eta elkarrekin norabide berean lana egitea. Horrela lortu ahalko baititu Ikastolak bere helburuak.

Guzti hau suspertzeko asmoz, egitura eta antolamendu bereziak ditu Ikastolak (partaidetza soziala, familia taldeak...).


### **Kanpo eragileekin elkarlana:**

Garapen komunitarioaren alorrean kokatzen du Ikastolak bere burua eta gizaki eta gizarte solidarioago bat garatzea du helburu. Era berean, gure bailarako herrietako euskara eta euskal kultura sustatzea helburu duten ekimenetan eta bere beharra dagoen jarduera guztietan parte hartzen du Andra Mari Ikastolak.

Lankidetzaren honen lekuko dira Ikastola gisa NIE eta EHIkin batera martxan ditugun proiektuak eta partekatzen ditugun asmoak eta baita herrietako udalekin, Sakanako mankomunitatearekin, gizarte zerbitzuekin, herrietako euskara taldeekin, beste ikastetxeekin... gauzatzen ditugun proiektuak.



## ANTOLAKETA EGITURA – 1. Eranskina



## GARAPEN INTEGRALA

